

---

## EUSKARAZKO PROGRAMA INFORMATIKOEN ERABILERA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

---

Informazioaren garaian bizi garela eta, informatika ezinbesteko lan tresna bihurtu zaigu. Eta aurrerantzean gero eta garrantzi handiagoa izango duela ematen du.

Aisialdian ere informatikak gero eta garrantzi handiago du. Haurrak eta gazteak dira aisialdian informatikaren erabiltzaile nagusiak.

Zure ordenadorean euskarazko programarik erabili nahi baduzu, orain baduzu horretarako aukera. Dagoeneko bada merkatuan euskarazko programa informatikorik:

- Microsoften Office2000, ofimatikako programa sorta.
- Microsoften Windows98, sistema eragilea.
- Internet Explorer 5 nabigatzailea.

Hortaz, bada, euskarazko programarik erosten baduzu, ZORIONAK!!!, Arrasateko Udalak hartarako dirulaguntza emango dizu eta:

- Prezioaren %50eko dirulaguntza jaso dezakezu.

Goian esandako programa horietakoren bat erosten baduzu, prezioaren %50 ordainduko dizu Arrasateko Udalak, zure entitatea mota honetakoa bada:

- Ikastetxea.
- Akademia.
- Euskaltegia.
- Kultur elkarte.
- Kirol elkarte.

Programa bakoitzetik ale bat baino gehiago erosiz gero, ale batek %50eko dirulaguntza izango du eta gainontzekoek %25ekoa. Edozein kasutan, dirulaguntza jaso ahal izateko faktura aurkeztu behar da Euskara Zerbitzuan.

- Prezioaren %25eko dirulaguntza jaso dezakezu.

Gainontzeko entitateek euskarazko programa informatikoen prezioaren %25eko dirulaguntza jasoko dute. Herritarrek ere bai.

Programa bakoitzetik ale bat baino gehiago erosiz gero, ale bateko dirulaguntza baino ez da jasoko. Edozein kasutan, dirulaguntza jaso ahal izateko faktura aurkeztu behar da Euskara Zerbitzuan.